

# Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2017ko uztailaren 10etik uztailaren 14rako astea

---

## ➤ **INGURU MAKROA:**


- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

## ➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

# INGURU MAKROA

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### EUROPA: INDUSTRIA-EKOIZPENA



### Datuaren analisia

Joan den maitatzean, Euroguneko industria-ekoizpenak % 1,3 egin zuen gora aurreko hilarekin alderatuta; daturik onena 2016ko azarotik. Aurreko urtearekin alderatuta, gainera, indizea % 4 igo zen, aurreko hileko % 1,2tik. Igoera horren arrazoia ekoizpenaren hazkundea izan zen, kapital-ondasunena, kontsumorako ondasun iraunkor eta ez iraunkorrena, energiarena eta bitarteko ondasunena, hain zuzen ere.


### Adierazlearen azalpena

Industria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den enpresa multzo baten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-sektorearen egoerari buruz egiten zaizkien galdetegiaren erantzunetatik lortzen dira datuak. Ekonomia baten ekoizpen-maila nola aldatzen den jakitea oso garrantzitsua da hazkundearen analisia egiteko.

# INGURU MAKROA

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### AEB: KPI



### Datuaren analisia

Aurreko hileko % 0,1eko jaitsieraren ondoren, ekainean ez zen aldaketarik eman Estatu Batuetako KPlan; urte arteko inflazioa, beraz, % 1,6koa izan zen. Azken hamabi hilabeteetako inflazioak behera egin zuen ekainean, aurreko datua (% 1,9) baino 3 hamarren gutxiago. Beherapen hori energiaren prezioen jaitsierak eragin zuen hein handi batean; gasolinak, esate baterako, % 2,8 egin zuen behera.

Elikagaien eta energiaren prezioak kontuan hartu gabe (hegakorrenak direlako), azpiko inflazioa % 0,1 igo zen ekainean, eta urte arteko metatua % 1,7koa izan zen.


### Adierazlearen azalpena

KPIa hileroko prestatzen du Lan sailak. Amerikako etxeek kontsumitzen dituzten oinarrizko zerbitzu eta ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

# INGURU MAKROA

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### JAPONIA: INDUSTRIA-EKOIZPENA



### Datuaren analisia

Maiatzeko amaierako industria-ekoizpenak apirileko % 4tik -% 3,6raino egin zuen behera (aurreikusitakoa -% 3,3). Beherakada horren arrazoia makineriaren produkzioaren gutxitzea izan zen, metalak tratatzeko makineriarena batez ere.


### Adierazlearen azalpena

Industria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den enpresa multzo baten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-sektorearen egoerari buruz egiten zaizkien galdetegiaren erantzunetatik lortzen dira datuak. Ekonomia baten ekoizpen-maila nola aldatzen den jakitea oso garrantzitsua da hazkundearen analisia egiteko.

# INGURU MAKROA

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### TXINA: KPI



### Datuaren analisia

Txinako KPIak urte arteko % 1,5 egin zuen gora ekainean. Ekaineko hazkundera maitzekoa bezalakoxea izan zen, eta apirilko % 1,2tik eta martxoko % 0,9tik gora kokatu zen. Prezio oso hegakorrek dituzten produktuak alde batera utzita (elikagaiak edo energia, adibidez), KPIa urte arteko % 2,2 igo zen ekainean, maitzeko % 2,1arekin alderatuta.

### Adierazlearen azalpena

KPIa hileroko prestatzen da. Etxeek kontsumitzen dituzten oinarriko zerbitzu eta ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

# INGURU MAKROA

## KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreikus
07/17	Txina	Urte arteko xehekako salmentak	% 10.6
07/17	Txina	Urte arteko industria-ekoizpena	% 6.5
07/17	Txina	Urte arteko BPGd	% 6.8
07/17	Estatu Batuak	Manufakturen inkesta New York	15.0
07/18	Erresuma Batua	Urte arteko KPIa	% 2.9
07/18	Eurogunea	Urte arteko KPIa	% 1.3
07/18	Alemania	ZEW oraingo egoerari buruzko inkesta	88.0
07/18	Eurogunea	ZEW inkestaren aukerak	--
07/18	Eurogunea	YoY azpiko KPIa	% 1.1
07/18	Estatu Batuak	YoY kontsumorako prezioen indizea	--
07/18	Estatu Batuak	Etxebizitzaren merkatuari NAHB indizea	68
07/19	Eurogunea	Urte arteko eraikuntzaren ekoizpena	--
07/19	Estatu Batuak	Hileko eraikuntza-baimenak	% 3.4
07/20	Japonia	Balantza komertziala	¥129.5b
07/20	Japonia	Hileko industria-indizea	-% 0.8
07/20	Alemania	Urte arteko ekoizpenaren prezioen indizea	% 2.3
07/20	Eurogunea	NSA kontu korrantea	--
07/20	Erresuma Batua	Txikizkako salmentak	% 1.9
07/20	Italia	Kontu korrantearen balantza	--
07/20	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	--
07/20	Eurogunea	Kontsumitzailearen konfiantza	-1.1
07/21	Espania	Balantza komertziala	--

# ASTE HONETAN MERKATUETAN

## BURTSAK:

Munduko burtsa nagusiek itxiera positiboak izan zituzten, Yellenek Kongresuaren eta Senatuaren aurrean egin zituen agerraldiek merkatuen arreta bereganatu zuten astean. Erreserba Federaleko presidenteak bilakaera ekonomikoari buruzko mezu positibo bat helarazi zuen, eta datozen urteetan ekonomiak neurrizko erritmoan hazten jarraitu beharko lukeela iragarri zuen. Horrez gain, diru-politika hedakorrik gabeko testuinguru honetan inflazioaren bilakaera zalantzarria dela adierazi zuen, eta, ondorioz, litekeena dela tasen igoera mailaz-mailakoa izatea. Balantzearen etorkizuneko murrizketari dagokionez, ez zuen datarik zehaztu, baina erakundeak bonuen mugaeguneratzeak berrinbertitzeari utziko diola berretsi zuen. Yellenen adierazpen ez hain gogorrek burtsen gorakada ekarri zuten Atlantikoaren bi aldeetan. Politikari dagokionez, mezu elektronikoko batzuk argitaratu ziren, non Trumpen seme zaharrak iturri errusiarretatik Clintonen kontrako agiri konprometigarriak jasotzeko aukera onartzen zuen. Enpresa-arloan, banku estatubatuarren urteko bigarren hiruhilekoko emaitzen lehen uholdea argitaratu zen; emaitzek aurreikuspen guztiak hautsi zituzten.

## ERRENTA FINKOIA:

Yellenen tonu ez hain bortitzak errentagarritasunen beheraka eragin zuen. Estatu Batuetako hamar urterako tasak 5 op egin zuen behera, % 2,33raino. Espainiako 10 urterako bonuak ere 8 op egin zuen behera, % 1,65eraino, eta arrisku-prima 105 puntutan kokatu zen (-10 op). Horrez gain, Alemanian, hamar urterako errentagarritasunak 4 op egin zuen behera, % 0,60raino. Kredituak, bestalde, hobera egin zuen eta bere diferentzialak estutu zituen.

## DIBISAK/LEHENGAIK:

Yellenen adierazpenak bigunagoak izan baziren ere (dolarrak gora egin zuen bilakaera ekonomikoari buruzko mezu baikorraren ostean), Erreserba Federaleko kide baten adierazpen zuhurrageok kotizazioan eragina izan zuten, maila orekatu batera heltzeko, tasak askoz gehiago igotzea ez zela beharrezkoa izango adierazi baitzuen. Horiek horrela, astearen amaieran, dolarrak % 0,45eko balio-galtzea izan zuen euroaren aurrean. Lehengaietan, berriz, petrolioaren prezioa % 4,41 handitu zen. Aurreikusitako azpitik egon ziren AEBetako inbentarioak eta Energiaren Nazioarteko Erakundeak 2018rako aurreikusitako produkzioaren murrizketak kotizazioaren lagungarri izan ziren. Urreak ere aurrera egin zuen, 1.228,70\$/ontza mailaraino.

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa Astean	% Ald 2017
MSCI WORLD (Local)	1.481,61	1,40	8,60
IBEX 35	10.655,10	1,59	13,93
DJ EURO STOXX 50	3.525,94	1,79	7,15
DJ STOXX 50	3.168,28	1,67	5,24
FTSE	7.378,39	0,37	3,30
S&P 500	2.459,27	1,41	9,85
Dow Jones	21.637,74	1,04	9,49
NASDAQ	6.312,47	2,59	17,26
NIKKEI 225	20.118,86	0,95	5,26
MSCI EMERGENTES (Lo	55.765,20	3,31	17,03
MEXBOL	51.162,23	2,20	12,09
BOVESPA	65.436,18	5,00	8,65
SHANGHAI	3.374,82	0,14	3,85
Rusia Rts Moscú	1.044,27	4,93	-9,38

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa Astean	Ald 2017
ALEMANIA 2 URTE	-0,61	-0,01	0,16
ESPAINIA 2 URTE	-0,25	-0,07	0,03
AEB 2 URTE	1,36	-0,04	0,17
ALEMANIA 10 URTE	0,60	-0,04	0,39
ESPAINIA 10 URTE	1,65	-0,08	0,27
AEB 10 URTE	2,33	-0,05	-0,11
ALEMANIA 30 URTE	1,33	-0,04	0,39
ESPAINIA 30 URTE	2,92	-0,10	0,31
AEB 30 URTE	2,92	-0,01	-0,15
<b>Kreditu-spreada (op)</b>			
MARKIT ITRX EUROPE 06/22	54,39	-2,38	-17,65
MARKIT ITRX EUR XOVER 06/22	244,28	-11,25	-44,43

Dibisak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald 2017
Dolarra / Euroa	1,15	0,45	8,65
Yena / Euroa	129,03	-0,82	4,87
Libera / Euroa	0,88	-1,03	2,53

Lehengaiak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald 2017
Petrolio (Brendt)	48,58	4,41	-12,33
Urrea	1.228,70	1,28	6,63

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.